

2005EKO URTARRILAREN 12KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila bi mila eta bosteko urtarrilaren hamabian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2004ko abenduaren 20an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren, 2004ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 13 zbk.dun fakturen zerrenda, LAUROGEITA BAT MILA EHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU EURO ETA BERROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (81.153,57 €)koa, bere espedientean jasotzen dena, onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 525 zbk.dun esped.: heriotzagatik baja ematen zaio zerbitzuan 2005eko urtarrilaren 5ean.

- 326 zbk.dun esped.: osasun egoitz unitatean sartu dela eta, baja ematen zaio zerbitzuan 2004ko abenduaren 22an.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 28 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimendu gastuak ordaintzeko hilean 56,75 €ko dirulaguntza ematea, urtariletik otsailera. Ematen zaiona eskatutakoaren %75a da.

IV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak gizarte zerbitzuetako teknikari lanpostua betetzeko hautaketa prozesuaren emaitzen berri ematen du. Esaten du lanposturako Laxia Urteaga Usandizaga A. izan

dela hautatua eta honen postu hartzearekin batera Marian Jauregi Turrientes A.ren kontratuari amaiera eman zaiola.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.